



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a  
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Greba Feminista Orokorra: zaintza  
sistema publiko komunitario  
bateranzko bideak urratzen**

*Maidar Barañano Uribarri  
eta Amalur Pascual Miñambres*

165-170 or.  
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.21>

#### ANTOLATZAILEA



#### BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



#### LAGUNTZAILEAK



## **Greba Feminista Orokorra: zaintza sistema publiko komunitario bateranzko bideak urratzen**

**Maider Barañano Uribarri, Amalur Pascual Miñambres**

*Soziologia eta Gizarte Langintza Departamentua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)*

[maider.baranano@ehu.eus](mailto:maider.baranano@ehu.eus)

[pascual.amalur@gmail.com](mailto:pascual.amalur@gmail.com)

### ***Laburpena***

Ikerketa honetan 2023ko azaroaren 30ean deitutako Greba Feminista Orokorraz arituko gara. Zehazki, 2022an Greba Orokorraren Feminista antolatzen hasteko dossierrean jasotzen diren aldarrikapenetan zentratuko gara. Hiru aldarrikapen nagusi egin zituen mugimendu feministak orduko hartan, zaintza lanak kolektibizatzea, zaintza lanak duindu eta profesionalizatzea, eta azkenik, zaintza eredu emantzipatzailea osatzea. Hiru aldarrikapen horietan zaintzaren iruditegi konkretuak eraikitzen dira, batzuetan zabalagoak eta besteetan estuagoak. Ikerketa honen bidez arditu nahi dugu zein diren irudikapen bakoitzak dituen potentzialtasun eta gabeziak, horietatik abiatuta aldarrikapen horien lurreratzak erraztu edo zaildu ditzakeelakoan.

Hitz gakoak: Greba Feminista Orokorra, zaintza, irudikapenak, mugimendu feminista

### ***Abstract***

*This research focuses on the General Feminist Strike called on November 30, 2023. Specifically, it examines the demands outlined in the dossier prepared in 2022 to organize the strike. At that time, the feminist movement put forward three main demands: the collectivization of care work, the dignification and professionalization of care work, and, finally, the creation of an emancipatory care model. These three demands shape specific imaginaries of care, sometimes broader and sometimes more restrictive. Through this research, we aim to identify the potentials and limitations of each imaginary, as they may either facilitate or hinder the materialization of these demands.*

*Keywords: General Feminist Strike, care, representations, feminist movement*

### **1. Sarrera eta motibazioa**

2023ko azaroaren 30ean Greba Feminista Orokorra egin zuen Mugimendu Feministak Euskal Herriko beste zenbait eragilerekin eta gehiengo sindikalariekin batera. Zaintza sistema publiko eta komunitarioa aldarri bete ziren kaleak, eten ziren eskolak, unibertsitateak, etxeak eta lantokiak, herriz herri, eskualdez eskualde antolatutakoa zen greba, Mugimendu Feministaren lidergoarekin aurrera ateratako lehen greba orokorra izan da Euskal Herrian. Baina egunaz haratago, inguruko prozesuan jarri nahi dugu arreta, Covid-19aren pandemiak eztanda egin zuenetik bost urte pasa diren honetan zaintzaren inguruko koordinatu politikoak eraldatzeko eta zaintza eztabaida politikoaren lehen lerroan jartzeko gaitasuna erakutsi baitu Mugimendu Feministak.

Baina zaintza lanena ez da gai berria Mugimendu Feministan, momentu batzuetan era nabarmenagoan, eta beste batzuetan xumeago, baina beti izan du tokia feminismoaren aldarrietan. Horregatik, prozesu honetan zaintzak hartu dituen esanahiaz, horiek dituzten potentzialtasun eta oztopoez eta mugimendu feministan grebaren testuinguruan sortutako parte hartze moduez hitz egin nahiko genuke. Horretarako autoreen doktore tesia eta Gradu Amaierako Lana hartu dira erreferentzia nagusitzat. Lehenengoari dagokionez, behaketa parte hartzailearen bidez Greba Orokorraren Feministaren prozesu ezberdinetan parte hartu izanak emandako jakintza metatua eta, bigarrenari dagokionez, Gradu Amaierako Lana osatzeko grebaren antolakuntzan parte hartu zuten mugimendu feministako kideen elkarrizketak hartu ditugu gure analisisan lan egin ahal izateko.

Grebaren prozesuan “Denon Bizitzak Erdigunean” plataforma izan da protagonista, bertan Euskal Herriko Mugimendu Feministako zenbait eragile bildu ziren itxialdi garaian, eta plataforma bera izan da 5 urtetako prozesu honen eroalea, zeinetan greba inflexio puntu garrantzitsu bat izanagatik, beste

pausu bat gehiago izan den. Guk prozesuan jarriko dugu arreta, zehazki, zaintzaren inguruan egin diren definizio eta aldarrikapenak, eta parte hartze formak landuko ditugu artikulu honetan zehar.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Zaintza ez da ezer testuinguru konkretu batean ez baldin bada, guk zaintza lan deitzen ditugun horiek modu ezberdinetan antolatzen direlako testuinguru historiko eta kultural bakoitzean (Esteban, 2010; in Esteban 2017). Gainera, orain arteko produkzio akademikoak oso gauza ezberdinez hitz egin du zaintzaz ari zenean. Definiziorik erabiliena Fisher eta Trontorena (1990) izan da, “gure ‘mundua’ mantendu, jarraitu edo konpontzeko” egiten dugun guztia da autore hauentzako zaintza, bertan “ahalik eta ondoen bizitzeko”. Baina definizio honek hutsune argiak ditu, izan ere, zaintzaren kontzeptua mugarik gabe zabaltzen du, zaintza “edozein giza harreman” (López Gil eta Pérez Orozko, 2011) dela emateraino. Autore batzuentzako, Paperman-entzako adibidez, (2005 in Martín Palomo, 2009) kontzeptuaren beraren zehazgabetasunak egiten du hain justu interesgarri kontzeptua, hala, dimentsio ezberdinak izatea, nahiz eta analisisa zail dezakeen (dimentsioak nahasi egiten direlako), konplexutasunak azalaratzeko tresna ere izan daiteke. Beste autore batzuen ustez aldiz (Esteban, 2017) zaintza kontzeptuaren “hipertrofia” kezkatzekoa da, hain zuzen ez delako ez historikoki ez kontzeptualki mugatzen.

Edonola konplexutasunak ez du zehazgabetasuna ekarri behar nahi eta nahi ez. Social care-en arabera (Daily eta Lewis, 2011) zaintza lau esparrutan egiten da, Estatuta, familiak, merkatua eta komunitatea lirakeke esparru horiek, eta jakina, ez dira ez zurrunik ez guztiz mugatuak ere. Aitzitik, porotsuak dira, elkar elikatu eta eragiten dute eta denboran eta espazioan aldakorrak dira. Horrek baina ez du esan nahi zaintza lanak edonola banatzen direnik, gizarte antolaketa eta dominazio ardatz konkretuen gainean eraikitzen da zaintza, zeinak subjektibitate konkretuak eraikitzen dituen zaintza lanekiko (Tronto, 1987). Hala, zaintza lanak aztertzeke ezinbestekoa da lan horiek sistema kapitalista, patriarkal eta kolonial batean antolatuta daudela ikustea. Gainera, espainiar Estatuan zehazki, ongizate erregimen mediterranearen nola, Ongizate Estatuaren garapen berantiarra eta txikia gertatu da, zaintza lanen zatirik handiena familiengan, eta horietan, emakumeengan utziz. Ondorioz, social care deritzon antolaketa hori ez da orekatua, gure testuinguruan familiak du pisurik handiena, eta beraz, generoak nola, ahaidetasunak ere gurutzatzen du zaintza lanen karga (soronellas).

Gauzak horrela, Mugimendu Feministan ere ez da kontsentsuzko definiziozko. Hala ere, badira mugimendu feministak zaintza lanak definitzeko erak aztertzeke saiakerak, tartean (Barañano, argitaratzeke; Ulazia, 2024). Lehen klasifikazioan zaintza lan ordaindu gabea, lan ordaindua edo eskubidea izan daiteke. Bigarren klasifikazioan zaintza (1) emakumeen lan subalternoa, (2) eskubidea edo (3) “indibidualismoaren eta produktibitate kapitalistaren aurka jarduteko modu” izan daiteke. Horietan, nahiz eta klasifikazio ezberdinak egiten diren zaintzaren definizioen inguruan, bada argia den adostasun bat, batzuetan zaintza emakumeek baldintza subalternoetan egiten duten jardura dela (Ulazia, 2024), horiek lan ordaindua eta ez ordaindua izan daitezkeela (Barañano, argitaratzeke) eta bestetan, zaintza eskubide bat dela (Barañano, argitaratzeke; Ulazia, 2024).

Euskal Herriko Mugimendu Feministan garatu diren bi korronteei dagozkie zaintzaren bi adiera hauek: batetik, zaintza unibertsalizatzearen aldeko jarrera, eta bestetik, zaintza-lanei uko egiteko proposamena. Horien ibilbideak deskribatu zituzten 2008ko Jardunaldi Feministetan Mendekotasuna dutenak Laguntzeko Euskal Sistema Publiko baten aldeko Plataformako kideek (Castro et al., 2008). Laburrean 1991n, Bizkaiko Emakume Asanbladan zaintzaren unibertsalizazioa eta erreprodukzio lanaren korrespondentzabilitatea jorratzen hasi ziren. 1992an, Osasun Batzordeak “Emakumea eta Osasuna” jardunaldiak antolatu zituen, etxeko zaintza-lanen ikusezintasunari eta doakotasunari erreparatuz. Bernaduago, 1993an, Euskadiko Emakume Asanbladek “Etxeko derrigorrezko zerbitzuari ez! Intsumisioa” kanpaina egin zuten Martxoaren 8ko ekitaldietan, nahiz eta eztabaida publikoa sustatzea lortu ez.

Gainera, 1986tik aurrera etxeko eta zaintza langileak ere hasi ziren antolatzen, proposamen eta molde politikoak berrituz. Horren ondoren zaintzaren sektorean gatazka handiak izan dira azken urteetan, horietan entzutetsuena Bizkaiko egoitzetako langileen greba (Irureta, 2019). Azkenik, 2018an, baina bereziki, 2019an, mundu mailako greba feministen eskutik, eta “emakumeok\*

gelditzekotan, dena gelditzen da” leloaren pean, zaintza lanak mugimendu feministaren eztabaidaren erdigunea berreskuratzen hasi ziren pixkanaka. Bi greba horiek izan dira azken urteetako mugimendu feministaren olatua irudikatu dutenak, izan ere, horietan mugimendu feministak antagonismo politikoa berkonfiguratzeko lortu baitu (Gago eta Malo, 2020). Prozesu horretan, zaintzaren inguruko diskurtso anitzak egin ditu mugimendu feministak, eta hala, gure helburua Greba Feminista Orokorra antolatzeke prozesuan, zehazki Greba antolatu ahal izateko oinarri izan zen dossierreko aldarrikapenetan, zaintzari esleitu zaizkion esanahiak zein diren eta horiek dituzten potentzialtasun eta arriskuak identifikatzeko izango da.

### 3. Ikerketaren muina

Beraz, ikus dezagun zein diren Greba Orokor Feministan, alde batetik, zein diren Denon Bizitzak Erdigunean plataformak zaintzaren inguruan egiten dituen aldarrikapenak eta horietan nola irudikatzen den zaintza.

#### 3.1 Aldarrikapenak

Bizitzak Erdigunean Plataformak 2022an argitaratu zuen txostenean azaltzen den moduan, plataforma bera Covid-19ak eragindako pandemiaren testuinguruan sortu zen. Pandemiarekin batera, azaleratu egin ziren jada gizartean zeuden hainbat krisi, gatazka eta hutsune. Horien artean, mugimendu feministak urteak lantzen daraman zaintza-krisia agerikoagoa egin zen, eta gaur egun bizitzak sostengatzeko ditugun gero eta zailtasun eta gabezia handiagoak begibistan geratu ziren. Honen inguruan hausnartzeko eta bideorri komun bat osatzeko helburuarekin jaio zen plataforma. 2022ko otsailean, Gasteizen zaintza jardunaldiak egin zituzten Euskal Herriko hainbat kide feminista eta eragileen artean. Bertan, zaintzaren inguruko ulerkeraren inguruko eztabaidak, gaur egungo zaintza sistemaren analisiak zein Zaintza Sistema Publiko Komunitarioaren lehen teorizazioak egiten hasi ziren. Proposamen feminista hori eraikitzen bidean, hiru bide estrategiko zehaztu zituzten jardunaldietan (Bizitzak Erdigunean, 2022):

##### 1) Zaintzaren kolektibizazioa.

Zaintzaren kolektibizazioaren aldarria da hiru aldarrietan lehena, kolektibizazioaren definizioak bi elementu barnebilduko lituzke arestian aipatutako dossierraren arabera:

- “Eragile guztiek zaintzeko erantzukizuna beren gain hartuko duten espazioak egotea; jasotzen dugun zaintza ez izatea gure familia-sarearen edo dugun diruaren arabera.”
- “Pertsona guztiak beren buruaren eta gainerakoen zaintzaren erantzukizuna hartzea: externalizazioaren logikarekin haustea (egin diezadatelako: emakume batek, estatuak edo erosita).”

Definizio hau bere oinarrian, dossierrean bertan jasotzen den eran, zaintza lanak merkantilizatuak, familiarizatuak eta feminizatuak daudenaren diagnostikotik abiatzen da. Hala, dossierraren arabera, diruak edota familia sareak ezin du zaintza eskubidearen bermea izan, aitzitik, komunitatearen zerbitzura antolatutako sistema publiko duinak izan behar du eskubide horien bermea. Zaintzaren kolektibizazioaren adiera honetan beraz zaintza eskubide gisa planteatzen da.

##### 2) Zaintza lanak duintzea eta profesionalizatzea.

Zaintza lanen duintze eta profesionalizatzeari dagokionez, hiru mota bereizten dira dossierrean bertan:

- “Ordaindu gabeko zaintza, batez ere, emakumeek etxeetan eskaintzen dutena: ez dago balioetsia eta horren ardura intentsiboki hartzea kaltegarria da bizi -kalitaterako, parte -hartze sozioekonomikorako, eskubide sozialak erabiltzeko, etab.”
- “Etxeko enplegua (feminizatu eta geroz eta etno /arrazializatuagoa): lan mota horretan hainbat eta hainbat eskubide urraketa gertatzen dira (laneko eskubideak eta giza eskubideak). Barneko etxeko enplegua “mirabetza neokolonialaren” modu bat da.”

- “Zaintza mota batzuk profesionalizatuta daude (haur hezkuntza, geriatría, etxez etxeko laguntza zerbitzua...) eta era prekarizatuan eta lan - baldintza txarretan egiten dira. Lan horiek tokian tokiko emakumeek egiten dituzte, eta gero eta gehiago dira emakume migratuak.”

Ezberdintasun horien identifikaziotik abiatuta, Mugimendu Feministak lan batzuen profesionalizazioa eta beste batzuen duintzea eskatzen du. Duintze hori balioan jartzearekin dago zuzenean lotuta, nahiz eta zaila den duintze prozesu horren nondik norakoak zein diren zehaztea.

### 3) Zaintza-eredu emantzipatzailea eraikitzea.

Zaintzaren egungo ereduaren kritikatik abiatzen da azken proposamen hau, honen arabera bi kontuk gurutzatzen dute egungo zaintza eredua:

- “Pertsonak banatu egiten ditugu: zaintza ematen dutenak (eta immolatzea eskatzen diegunak) eta zaintza jasotzen dutenak (eta subjektu pasibo, gauza, bihurtzen ditugunak). Hori begirada morroi eta ahalgabetzailea da.”
- “Gainera, horrek eztabaidatik kanpo uzten ditu ustez zaintza behar ez dutenak eta ematen ez dutenak (dibertsitate funtzionalik ez duten gizon helduak, oro har; eta gero eta emakume gehiago).”

Eredu honetatik atera ahal izateko hurrengo bi proposamenak egiten ditu Mugimendu Feministak dossierrean bertan:

- “Elkarrekiko zaintzaren kultura bat eraiki: zaurgarritasuna eta interdependentzia aitortuko dituen.”
- “Zaintzarako eskubidea eskubide kolektibo unibertsaltzat aitortzea (pertsona guztientzat izatea), eta bizitzen dibertsitatea (ez hegemonizatzea) eta zaintza - harremanen dibertsitatea ere aitortzea.”

## 4. Ondorioak

Hiru aldarrikapen zuzen egin zituen Mugimendu Feministak 2023ko Greba Feminista Orokorren antolakuntzaren hasieran. Horietan zenbait erronka berezitu aurkitzen ditugu baina horietan garrantzitsuena zaintzaren definizio zabalari dagokiona da.

Zaintzen kontzeptu zabalak erronka zein aukera izan daiteke zaintza publiko-komunitarioaren sistema definitu eta irudikatzeko orduan. Alde batetik, erronka izan daiteke, zaintzen ikuspegi zabala nahasmena eta gaizki-ulertuak eragin ditzakeelako, bai terminoaren beraren inguruan, bai horri lotutako aldarrikapenei dagokienez. Izan ere, zaintzen adiera gehiegi zabaltzeak ekar dezake kontzeptua bera hustu eta erabilgarritasunik gabe geratzea. Hala ere, zaintzen definizio plural batek egungo zaintza-krisiaren konplexutasuna jasotzeko balio dezakeelakoan gaude, erronka konplexuen aurrean eta mugimendu sozialen eta biztanleriaren sektore desberdinen arteko aliantzak sustatze aldera, zaintzaren irudikapen zabal batek aukera eman dezake bestela ezinezkoak diren artikulazioetatik lan egin ahal izateko. Hala Greba Feminista Orokorrak eta berau antolatzen erabilitako baliabide anitzek bide eman dute zaintzaren definizio zabal batetik aldarrikapen konkretuetarako saltoa egiteko.

Lehenik eta behin, zaintzen ikuspegi zabalduren perspektibatik hitz egiten denean, ikusten dugu Fisher eta Trontok emandako definiziora hurbiltzen garela sarritan: zaintzak “gure mundua mantentzeko, iraunarazteko eta konpontzeko egiten dugun guztia dira, bertan ahalik eta hobekien bizitzeko” (1990: 40). Definizio zabala da, hain zabala non, batzuetan, ia mugagabea bihurtzen den, “harreman gizatiar ia oro” biltzen duen “saski handi” bat (Pérez Orozco eta López Gil, 2011). Hala ere, ikuspegi honek eraldaketarako ahalmen handia du.

Ikuspegi honetatik zalantzan jartzen da ekonomiaren ikuspegi produktibista, zaintzen kate globalak, politika publikoen gabeziak, migrazio-bizitzen kriminalizazioa eta haurren nahiz adinekoen beharrei ematen zaien arreta eza. Horrenbestez, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka bistaratzen dute (Carrasco, 2017; Pérez-Orozco, 2006, 2014): “kapital metaketa-prozesuaren eta bizitzaren

iraunkortasunaren arteko gatazka konponezina”, eta horrek ikuspegi hau trantsiziorako bide-orri bihurtzen du (Pérez Orozco, 2014: 104). Hala, iruditeria kolektibo berriak sortzeko gaitasuna du zaintzaren definizio zabalak. Hizkuntza eta praktika berriak artikulatzen dituzte, pertsona guztien bizitzaren hauskortasuna kontuan hartzen duten ereduak eraikitzeko.

Hala ere kontuan izan behar dugu zaintzen ikuspegi politiko eta zabaldu honek barne hartzen dituen dimentsio moral eta etikoetako bat zaintzaren balorizazioaren edo berbalorizazioaren beharra dela. Hau garbi ikusten dugu dossierraren aldarrikapenetako bigarren puntuan, zeinak zaintza lanak “duintzeaz” hitz egiten duen. Delphyren hitzetan, dimentsio horiek “arreta handiz aztertu behar dira, guztiz kontrako bi norabidetan eragin dezaketelako” (2022: 71). Zaintzaren ikuspegi idealizatu edo mistiko batek (Borderías et al., 2011: 71) batzuetan ez ikusiarena egin diezaioke denboraren, baliabideen, ausentzien eta zaintza aginduen banaketari lotutako gatazkari (Molinier eta Legarreta, 2019). Berbalorizazioak “interes intrintseko” eta “mistiko” batetik justifikatzeko arriskua dauka (ibidem), eta horrek “zaintzaren etika erreakzionarioak” (Pérez Orozco, 2014) ezkutatu ditzake, hau da, zaintzaren esentzializazioa, feminizazioa edo arrazializazioa sustatzen dituzten logikak, baita autoinmolaziozko zaintza praktikak ere.

Berbalorizazio hori ez dator beti banaketa bidezko batekin batera, izan ere, Estebanek gogorarazten duen bezala, “pertsonen arreta fisiko eta emozionalari dagozkion zereginak [...] antolaketa sozial, ekonomiko eta historiko jakin bati dagozkio” (2017: 39). Gu, eta beraz, egiten ditugun diskurtsoak, praktikak, Greba Feminista Orokorra barne, kapitalista, arrazista eta patriarkala den errealitate batean kokatzen dira. Hala ere, argitu beharra da dossierrean bertan jasotzen direla halako tendentzien inguruko kritikak, eta beraz, nahiz eta arriskuak hor egon, Mugimendu Feministak dossier honetan, arazo horien inguruko identifikazio bat egiten duela ere esan genezakeela.

## 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Etorkizunean Greba Feminista Orokorren eta bere bueltan sortutako zaintzaren inguruko diskurtsoen inguruan ikertzen jarraitzea ezinbestekoa dela uste dugu. Batetik, greba prozesu gisa ulertuta eta Denon Bizitzak Erdigunean plataformak bere ibilbidean aurrera egin duela jakinik, zaintzaren ulerkerak findu ote diren edo norabide konkreituak hartu ote dituzten ikertzeke baitago oraindik. Bestetik, uste dugu Euskal Herriko Mugimendu Feministaren erdigunean dagoen gaitetako bat izanik zaintzarena, nahiz eta momentu batzuetan protagonismo handiagoa edo txikiagoa, beti dela baliagarria mugimenduaren eta ikerketaren arteko hartu emanak elikatzea eta gure ikerlari posizioetatik Mugimendu Feministari baliagarriak zaizkion ekarpenak egitea.

## 6. Erreferentziak

Castro, Isabel; Esteban, Mari Luz; Fernández de Garaialde, Arantza; Menéndez, Maria Luisa; Otxoa, Isabel y Saiz, Mari Carmen (2008). “No habrá igualdad sin servicios públicos y reparto del cuidado: Algunas ideas para una política feminista”, *IV Jornadas Feministas de Euskal Herria*.

Carrasco Bengoa, Cristina. (2017). La Economía Feminista. Un recorrido a través del concepto de reproducción. *Ekonomiaz*, 91, 53-77.

Daly, Mary eta Lewis, Jane (2011). "El concepto de 'social care y el análisis de los Estados de Bienestar contemporáneos", Carrasco, Cristina; Borderías, Cristina eta Torns, Teresa (ed.) *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*. Madrid: Catarata. (225-251).

Delphy, C. (2022). *Por un feminismo materialista*. Barcelona: Verso.

Esteban, Mari Luz (2017). “Los cuidados, un concepto central en la teoría feminista: aportaciones, riesgos y diálogos con la antropología” *Quaderns-e*, 22: 33-48.

Fisher, Berenice eta Tronto, Joan C. (1990). "Toward a Feminist Theory of Caring", E. Abel eta M. Nelson (Ed.) *Circles of Care*: SUNY Press. (36-54).

- Irureta, Onintza (2019). *Berdea da more berria. Bizkaiko erresidentzietako grebalarien testigantzak*. Argia liburuak.
- Martín Palomo, María Teresa (2009). "El care, un debate abierto: de las políticas de tiempos al social care". *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia*, 4, 325-355.
- Molinier, Pascale eta Legarreta, Matxalen (2019). "La perspectiva del cuidado: de lo ético a lo político", Wlosko, Miriam eta Ros, Cecili (koord.) *El trabajo: entre el placer y el sufrimiento. Aportes desde la psicodinámica del trabajo*: Universidad Nacional de Lanús. (165-184).
- Pérez Orozco, Amaia eta López Gil, Silvia (2011). *Desigualdades a flor de piel: Cadenas globales de cuidados. Concreciones en el empleo de hogar y políticas públicas*. Creative Commons.
- Pérez Orozco, A. (2006). Amenaza tormenta: La crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico. *Revista de Economía Crítica*, 5, 7-37.
- Pérez-Orozco, A (2014). *Subversión feminista de la economía. Apuntes sobre el conflicto capital-vida*. Madrid: Traficantes de Sueños
- Tronto, Joan C. (1987). "Más allá de la diferencia de género. Hacia una teoría del cuidado". *Signs: Journal of Women in Culture and Society*, 12, 1-17.
- Ulazia, Uma (2024). *Euskal Herriko greba feministak. Diskurtsoaren analisisa feminismo materialistatik*. Lisipe, Susa.

## 7. Eskerrak eta oharrak

Atal hau baliatu nahiko guke gurekin batera ikerketan jarduten dutenei, batez ere, Matxalen Legarreta eta Marina Sagastizabali, haien ekarpenak eta iritziak ezinbestekoak izan baitira ikerketa honen garapenean. Mugimendu Feministari eta bertako militanteei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, eskuzabaltasun osoz elkarriketetan parte hartzeko prestutasuna adierazteagatik, eta batez ere, Euskal Herriko txoko guztietan Greba Feminista Orokorra eta bere prozesu guztia hauspotzen jarraitzeagatik.